

B euskararen BERRIPAPERA

HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PLANAK EUROAPAN

Azken urteotan euskararen normalkuntza lortzeko bidean eman diren urratsak fruituak ematen ari dira. Bai ezagutzaren aldetik, baita erabileraren aldetik ere, aipatzekoa da azken urteotan euskarak izan duen garapena, batez ere irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan. Horren inguruan, urratsak emateaz gain, gogoeta sakonik ere egin da. Hain zuzen ere, Euskararen Aholku Batzordeak, 1993an, euskararen politikarako oinarriko irizpideak finkatu eta jakitera eman zituen, izen bereko agirian. Era guztietara, gogoeta beti da beharrezkoa eta horrexegatik da berri pozgarria, uztailean, Donostiako Uda Ikastaroen barnean, Euskal Herriko Unibertsitateak Hizkuntza Normalkuntzarako

Plan Nagusia izenpean antolatua duen ikastaroa, bertan bilduko baitira gai honetaz zeresan eta zeregin garrantzitsuak dituzten hizlariak eta entzuleak.

Ikastaroaren helburu nagusia, alde batetik hizkuntza plan nagusiaren definizioaren, beharren eta arazoengatik hausnarketa egitea da, eta bestetik, lan-ildoak erakustea, Euskal Herriko, Estatu barruko nahiz kanpoko esperientzien argitan.

Euskararen inguruan dagoen hizkuntza politikaz hiru hizlari ari tuko dira: batetik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea den Josune Ariztondo andereak, Euskal Autonomi Elkartearen eredu, lehentasunak eta iharduera esparruak aztertuko ditu. Bestetik, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Poli-

tikarako zuzendari nagusiak, Jose M^a Rodriguez Ochoa jaunak, Nafarroako Foru Komunitatearen hizkuntza politikaren alderdirik aipagarrienak emango ditu ezagutzera. Hirugarrenik, Euskal Herriko Unibertsitatearen hizkuntza politikaren berri emango du Miren Azkarate andereak, EHUKo Euskararako errektoreordeak.

Ikastaro honetan, halaber, Kataluniako Normalkuntza Plan Nagusia ezagutzeko aukera izango dugu, Kataluniako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia den Miquel Reniu jaunaren eskuetik. Katalunian indarrean dagoen plan nagusia zehazteko erabilitako prozedura azalduko du bestalde, Isidor Mari jaunak, Kataluniako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendariordeak.

SUMARIOA

- 1** Hizkuntza normalkuntza planak Europan
- 2** Laburrak
Miquel Siguan Soler
Kontuan hartzeko
- 3** Planeta Hiztegi Entziklopedikoa euskaraz
Euskarazko herri aldizkariak
Deialdiak
- 4** Izen-abizenaz
Lehen begiratuan
Hitzaro

Estatuko hirugarren eredu bat ere aztertuko da Donostiako ikastaro honetan, Galiziako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia den Manuel Regueiro jaunak galizieraren sustapenez hitz egingo baitigu. Bestalde, Dublingo Micheál Ó Gruagáin jauna, *Irish Language Board* erakundeko ordezkaria, Irlandako bi hizkuntzaz arituko da, eta, John Walter Jones jaunak, *Welsh Language Board* erakundeko ordezkariak, Galeseko hizkuntza normalkuntzarako plangintzaren berri emango digu. Azkenik, Donostian izango da ere Olga Profili anderea, Europako Batzordearen Hezkuntza, Formazio eta Gazteria Zuzendaritza Nagusiko ordezkaria, eremu urriko hizkuntzei begira Europako Batzordeak duen hizkuntza politikaz iharduteko.

✕ *Uztailaren 19tik 20ra bitartean, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren laguntzaz, Hizkuntza Normalkuntzarako Plan Nagusia ikastaroa egingo da Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Ikastaroetan. Zuzendaria Miren Azkarate irakaslea izango da. Argibideak: Donostiako Miramar Jauregian. Tel. zenb.: 943. 21 95 11.*

LABURRAK

El periódico
unibertsitateko aldizkaria
UNIBERSITARIO

El Periódico Universitario Unibertsitateko Aldizkaria hamabostean behin kaleratzen den argitalpena da eta arrakasta handia izan ohi du ikasleen artean. Irakurleen eskariei erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak *El Periódico*-k euskarazko gehigarria atera dezan sustatu du. Honetan, erreportajeak, elkarrizketak edota bekei, ikastaroei edo lan-poltsari buruzko albisteak ematen dira. *El Periódico Universitario Unibertsitateko Aldizkaria* 1993az geroztik banatzen da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako kanpusetan. Une honetan 60.000 ale ateratzen ditu eta doan banatzen da ikasleen artean.


de bat a bat

PER CONÈIXER EL PAÍS BASC

Euskal Herriaren eta euskal kulturaren informazioa zabaltzeko asmoz, argitalpen berria irten da egunotan Kataluniako kioskoetara: *De bat a bat, per coneixer el País Basc* izeneko aldizkaria. Bihilabetekaria da eta Bartzelonako Euskal Etxearen inguruko euskaldunek bultzatu dute, gogotik bultzatu ere, aldizkariaren sorrera. Katalunian Euskal Herriarekiko eta euskal kulturarekiko interes handia egon arren, gure berri izateko oztopo eta arazo asko dituztela ikusi dute. Egoera horri aurre egiteko, bi hilabete behin argitara emango den aldizkaria sortzea otu zitzairen. Euskal Herriko kultur eta gizarte gaiak aurkezten ditu *De bat a bat* aldizkariak eta asmo hori gauzatzeko, bi erredakzio-talde antolatuta behar izan dira: bata Bartzelonan, hiru lagunek osatua eta bestea Euskal Herrian, bi kazetariren ardurapean.

Miquel Siguan Soler

Euskal Herriko Unibertsitateak Miquel Siguan Soler hizkuntzalari katalana *honoris causa* doktore izendatu zuen apirillean. Ekitaldi horrekin, euskal komunitate akademikoaren onespina jaso du Siguanek, hizkuntzaren eta elebitasunaren inguruko gaiei sarbidea errazteko egindako lanagatik. Izan ere, euskaldunok zor handia dugu Siguan doktorearekin. Zaila da Miquel Siguanek egindako lana hitz gutxitan laburtzea. Anitz arlo aztertu eta jorratu ditu, eta guztietan utzi du bere arrastoa. Baita gure artean ere. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitatea sortzear zegoen garaian hemengo profesionalei emandako laguntza nabarmenezkoa ezezik, eskertzekoa ere bada. Bartzelonan sortu zen Miquel Siguan duela 78 urte; bertan egin zituen lehen ikasketak eta eskolan



egin zen elebidun, katalanera baitzuen ama hizkuntza. Ezaugarri horrek bizi osorako markatu egin zuela esan ohi du Siguanek. Bere lana hiru arlotan nabarmendu da: Psikologia Industrialean, Haur Psikologian eta Hezkuntza Zientzietan. Gaur egun hizkuntza politika eta hezkuntza elebiduna ditu ikerbide nagusiak eta 1975az geroztik, arlo horretako ikerketa programa baten sustatzailea da. 1987an UNESCOren *Linguapax* Batzordeko lehendakaria izendatu

zuten, irakaskuntza kulturaren alde egindako lanagatik. Siguanen ikerketek eta teoriek jakinmina piztu ohi dute beti gure artean. Euskararen sarbidea irakaskuntzan nola erraztu ikertu du eta sortutako arazo eta galdera askori erantzuteko, Siguanengana jo izan dute hemengo profesionalek. EHUko hainbat irakasle eta sailekin harreman estuak izan ditu, eta ditu gaur egun ere, doktoradutza ikastaroak, mintegiak edota ihardunadiak direla eta.

KONTUAN HARTZEKO

Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa

Lazkaoko bertsolariaren izena eta izana gogoratzeko, Ordiziako Argi-Berri Elkarateak *V. Bertsopaper Lehiaketa* antolatuta du, udalaren laguntzaz. Deialdiak hiru maila aurreikusten ditu: gaztetxoena (13 urte bitartekoentzat), gazteena (18 urte bitartekoentzat) eta helduen maila. Gaia librea izango da gazte eta helduentzat, baina gaztetxoek *Gure eskola* gaiaren inguruko bertsoak aurkeztu beharko dituzte. Lanok Ordiziako Argi-Berri Elkartera bidali beharko dira uztailearen lehen baina lehen.

Irun Hiria Literatur Sariak

Irungo Udalaren laguntzaz, Gipuzkoa Donostia Kutzaren Kutxa Fundazioak *Irun Hiria Literatur Sariak* antolatuta ditu aurten ere. Deialdiak bi atal bereizten ditu: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Horietako bakoitzean hiru arlo izango dira: olerkia, eleberria eta saiakera. Lanak aurkezteko epea uztailearen 15ean itxiko da eta sarien banaketarako ekitaldia azaroan egingo dela iragarri dute. Informazio gehiago behar izanez gero, Kutxa Fundaziara jo.

★ **Ahoz aho, belaunez belaun ... hil honetan non?****Ekainaren 3tik 16ra bitartean, Bergaran****Ekainaren 17tik 30era bitartean, Zallan**

PLANETA HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA EUSKARAZ

Planeta argialetxeak *Planeta Hiztegi Entziklopedikoa Jakintza Arloka* lanaren euskarazko edizioa aurkeztu zuen maiatzean. Bereziki hamabi eta hemezortzi urte bitarteko ikasleen beharrei begira egin dago, baina edonorentzat da baliagarria. Hamabost liburukik osatuko dute, hauetatik hamalau itzuli egingo dira eta hamabosgarrena oso-osorik izango da berria.

Obra honen arduraduna Sebastián Rodríguez Espinar da, Hezkuntza Zientzietan doktorea. Euskarazko bertsiorearen zuzendari orokorra, berriz, Angel Lobera da eta Joseba Arregi Aranburuk Euskal Herriari buruzko liburukiaren ardura du. Testuen orrazketa Dionisio Amundarain ari da egiten.

Hamabosgarren liburuan, Euskal Herriari buruzkoan, historiaurrea, fauna eta flora, etnologia, geografia, ekonomia, Euskal Herria eta itsasoa, historia, arte ederrak, hizkuntza, euskal kirolak, musika eta zinea jorratuko dira.

Guztira, 1.100 gai baino gehiago ditu *Planeta Entziklopediak* bi edo lau orrialdeko modulutan banaturik. Bi mailako irakurketa eskaintzen du: bata oinarritzkoa, sarreraren ondoan doan testuen bidez, eta goragoko mailakoa bestea, gai bakoitzak duen testu nagusiaren bidez. 6.300 irudiz osatua dago, 1.200dik gora eskema eta marrazki, eta 100dik gora mapa geografiko eta historiko ditu.



DEIALDIAK

Euskararen inguruko laguntzak, aurki kalean

Laster izango dira kalean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak euskararen inguruko iharduerak bultzatzeko urtero kaleratzen dituen dirulaguntzak. Urtero bezala, aurten ere hiru laguntza mota izango dira:

- X** batetik, euskararen erabilera normalizatzeko 1996. urtean zehar burututako ekintzetarako laguntzak, Euskal Autonomi Elkarteko toki entitateei eta horien eremuan zerbitzu publikoak kudeatzen dituzten entitateei zuzendutakoak;
- X** bestetik, euskara sustatu, garatu edota normalizatzeko lanetan diharduten pertsona juridiko pribatuei eskainitako laguntzak;
- X** eta hirugarrenik, egunerokoak ez diren euskarazko aldizkako argitalpenak kaleratzen dituzten pertsona juridiko pribatuentzako laguntzak.

Deialdiok kalean izango dira uztaileko.

Euskarazko herri aldizkariak

Euskal Herrian euskara hutsez egiten diren aldizkari gehienak herrietako euskara taldeen edo kultura taldeen ekimenez kaleratzen dira, eta herri aginteek diruz laguntzen dituzte. Mapa honetan ikus ditzakezu euskarazko aldizkariak dituzten herriak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak dituen datuen arabera. Herrietako aldizkari horiek euskaraz idatzita daude oso-osorik, maiztasun jakina dute, hogeitik gora orrialde dituzte gehienek, eta herriko edo eskualdeko berriak zabaltzen dituzte. Ez dira kontuan hartu, besteak beste, erakunde publikoek kaleratutako aldizkariak, eskola aldizkariak, kultur boletinak, etab. Aldizkari horien tiradaren arabera, gutxi gora-behera 268.950 irakurle dituztela jo daiteke.

Astekaria

- 1 Arrasate
- 2 Bergara
- 3 Elgoibar
- 4 Legazpi
- 5 Durango
- 6 Eibar
- 7 Donostia
- 8 Baiona

Hamabostekaria

- 9 Bera
- 10 Andoain
- 11 Bermeo
- 12 Aretxabaleta
- 13 Ordizia
- 14 Lasarte-Oria

Hilabetekaria

- | | |
|-----------------|---------------|
| 15 Ondarroa | 21 Elgeta |
| 16 Getxo | 22 Orío |
| 17 Gernika-Lumo | 23 Errenteria |
| 18 Ermua | 24 Mungia |
| 19 Tolosa | 25 Urdiain |
| 20 Gasteiz | |





Javi Cillero
Ignacio Aldekoa Ipuin Saria


Javi Cillero bilbotarrak eskuratu du Ignacio Aldekoa ipuin sariketaren 25. ekitaldiko saria, *Baiona Blues* izeneko lanarekin. Bi emakumeren arteko harremanen nondik norakoak azaldu ditu Cilleroren ipuinak eta, izenburuak adierazten duen legez, Baionan kokatzen da istorioa. Cillero Bilbon sortu zen 1961. urtean. Euskal Herriko Unibertsitatean Kazetaritza ikasi zuen eta bertan lizentziatu

zen. Ondoren, Itzulpengintza masterra egin zuen Deustuko Unibertsitatean eta geroztik, zeregin horri emanda, makina bat lan argitaratu du. Bereak dira, beste askoren artean, Mark Twainen *The man who corrupted Harleyburg*, Charles Dickens *Hard times* edota Fitzgeralden *Babylon revisited* lan ezagunen euskarazko bertsioak.

Patxi Ezkiaga
Jon Mirande Euskadi Saria

Patxi Ezkiaga Lasa idazle gipuzkoarrak eskuratu du Jon Mirande Euskadi Saria, *Zure haragi bereko* izeneko eleberriarekin. Honenbestez, salestar honek jaso dituen sari ugariaren zerrendari beste bat, oraingoz azkena, gehitu behar zaio. Legorretan jaio zen Ezkiaga duela 53 urte. Cambridgeko eta Oxfordeko unibertsitateetan egin zituen literaturako ikasketak, eta Bilbora itzultzean, Deustuko

Unibertsitatean lizentziatu zen Filosofia eta Letretan. Glotodidaktika arloan, *Euskara Mailaka* eta *Txanpa* proiektuetan hartu du parte; horrez landa, *Euskal Literaturaren Historia* eta euskal literatoei buruzko 33 gidioen egilea da. Bere sormen lanean poesia eta prosa jorratu ditu, eta bi arlootan makina bat sari eskuratu du Ezkiagak. Gaur egun, irakaslea da Donostiako La Salle ikastetxean.



HITZARO

Jakingo duzu honez gero, Euskal Telebistak, larunbatero, eguerdiko ordu bi eta erdietan euskararen inguruko albistegia eskaintzen duela, HITZARO hain zuzen.

Ekainaren 8ko saioan, azken hamarkadan, hau da, 1982an *Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko Legea* onartu zenetik hasita, euskara indartzeko eta biziberritzeko egin diren urratsei begiratu bat emateko aukera izango dugu.

Horretarako propio prestatu den erreportajea, euskararekin zerikusia duten hainbat arlotako adituek euskararen bilakaeraz duten ikuspegia azalduko digute. Horrez gain, urteotako ibilbidea osatzeko, euskararen hizkuntza politikaren arduradun nagusia den M. Carmen Garmendia anderearekin egindako elkarrizketa izango da. Bere esperientzian oinarrituta gai horren inguruan dituen iritziak eta aurrera begirako asmoak azalduko dizkigu.

Lehen
begiratuan

Haur eta gazteen astiorduetako ekintzak euskaraz izateak garrantzi handia du euskararen jarraipenerako. Alboan duzuen argitalpenean, *Txatxilipurdi* elkarteak orain arte egindako lana aztertzen du, eta astiorduetako ekintzak antolatzen dihardutenen esku jartzen du hausnarketa hori, gainerako taldeei ere baliagarri gerta dakiekeelakoan. Argitalpena Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren laguntzaz kaleratu da.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako
Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

